

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 1,23 milioi euro eman du industriako 23 ETEren inbertsioei laguntzeko

Gainera, 1,54 milioi euroko gastua baimendu du gaur Geiser Pharma enpresak Lekarozko Campusean inbertitzeko asmoa duen diru-laguntza modura

Jueves, 16 de julio de 2015

Nafarroako Gobernuak 23 enpresari industriako laguntzak eman dizkie [2015eko industriako ETEen inbertsioei laguntzeko deialdi](#)aren lehen hilabeteetan, eta urriaren amaiera arte zabalik izango da.

Zehazki, emandako kopurua [1,23 milioi euro](#) da, eta % 16,7ko batez besteko diru-laguntza bati dagokio. Diru-laguntza jadanik eman zaien enpresek 8,57 milioi euroko inbertsioa aurreikusten dute.

Kopuru horri laster Nafarroako Gobernuak gaur Lozy's Pharmaceuticals enpresari baimendutako laguntza gehituko zaio; Geiser Pharma haren filialaren bidez, fabrika bat eraikitzen ari da Lekarozko Campusean. Enpresaren inbertsioa 6,72 milioi eurokoa da, eta proiektua ebaluatu ostean, gastu bat baimendu da 1,54 milioi euroko diru-laguntza bat emateko, lagundu daitekeen inbertsioaren % 23.

12,3 milioi euro laguntzetan

2015eko industriako ETEen inbertsioetarako laguntzak 12.3 milioi eurokoak dira, eta eska ditzake aurten Nafarroan urriaren 31 baino lehen industria-inbertsioak egingo dituen edozein enpresak.

Deialdiak laguntzen zenbatekoaren eskala bat ezartzen du, eta aurrekontuaren %30era heldu ahalko dira gehienez. Zenbatekoak handiagoak izango dira honako kasu hauetarako: mikroenpresak, ekonomia sozialeko enpresak, bokazio esporatzailea dutenak, lan-taldean emakume asko edota desgaitasunak dituzten pertsonak dituztenak, ingurune kaltetuetan daudenak, bai eta I+G proiektuen ondoriozko inbertsioen edo enpresa-deibertsifikazioaren ondoriozkoak.

Ekimena EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatzen du, eta jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko Akordioaren barnean sartzten da, iragan urrian Foru Gobernuak eta eragile ekonomiko eta sozial nagusiekin urrian sinatu zutena: CEN, UGT eta CCOO.